DOKUMENTUAK ZAHARBERRITZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIOS DE RESTAURACIÓN DE DOCUMENTOS

1- KONTRATUAREN XEDEA:

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuaren dokumentu-ondarea zaharberritzea: Korrejimenduaren Funtsa (1631-1640 eta 1641-1650 urteak).

1.- OBJETO DEL CONTRATO:

Restauración de Patrimonio documental perteneciente al Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia: Fondo del Corregimiento (años 1631-1640 y 1641-1650).

1.1. Zaharberritzearen helburuak:

Kultura Ondarearen Zerbitzuko dokumentu-ondarearen osotasuna, kontsulta/erabilera eta kontserbazioa bermatzea. Zaharberritze horretan, dokumentazio fotografikoa eta grafikoa egingo da, desmuntaketa, siglatua, garbiketa, zabaltzea, desazidotzea, egonkortze fisiko-kimikoa, sendotzea eta lisatzea, errefortzuak eta euskarria sendotzea, euskarriaren leheneratze zelulosikoa galdutako eremuetan (pulparen eta jatorrizkoaren arteko doikuntza kromatikoa), bai eta paper-sorta bakoitza kontserbatzeko eta zaharberritzeko prozesuaren azken txosten teknikoa ere.

Orri-neurria, gutxi gorabehera, 31 cm x 21,5 cm da. Jostura kentzea besterik ez da sartuko lanetan. Ez da josi behar.

1.1. Objetivos de la restauración:

Garantizar la integridad, consulta/utilización y conservación del Patrimonio documental perteneciente al Servicio de Patrimonio Cultural. Esta restauración consistirá en realización de documentación fotográfica y gráfica, desmontaje, siglado de hojas, limpieza, desplegado, desacidificación, estabilización físico-química, consolidación y planchado, refuerzos y consolidación del soporte, reintegración celulósica del soporte en zonas perdidas (ajuste cromático de la pulpa con el original), informe técnico final del proceso de conservación y restauración de cada legajo.

El tamaño aproximado de hoja es de 31 cm x 21,5 cm .Los trabajos incluirán únicamente el descosido. El cosido no ha de realizarse.

2. EZAUGARRI TEKNIKOAK

Edozein esku-hartze egin aurretik, nahitaez egin beharko da kontserbazio-egoerari buruzko dokumentazio fotografikoa eta grafikoa, bai eta orrien desmuntaketa eta siglatzeari buruzkoa ere.

2. CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS

Previamente a cualquier intervención será necesario elaborar la documentación fotográfica y gráfica del estado de conservación así como del desmontaje y siglado de hojas.

a) Orokorrak:

a) Generales:

Elektronikoki sinatutako dokumentua. VV07-58A9-MICN-KSKX Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) VV07-58A9-MICN-KSKX en www.ebizkaia.eus.

Adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du kontratuaren xedea behar bezala garatzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide material guztiak jartzeko. Gainera, langileen harreman juridikoa eta lan arlokoa entitatearen eskumenekoak dira, bai eta zerbitzuak behar bezala eta eraginkortasunez emateko beharrezko izan litezkeen langileen ordezkapenak ere. Ildo horretan, jasota geratzen da Bizkaiko Foru Aldundiak ez duela inolako lan-harremanik izango, ondorio guztietarako, erakunde esleipendunaren talde profesionalarekin.

La adjudicataria se compromete a poner todos los recursos humanos y materiales que sean necesarios para el correcto desarrollo del objeto del contrato, siendo su competencia la relación jurídica o laboral de dicho personal y las sustituciones de personas que pudieran ser necesarias para la correcta y eficaz presentación del objeto del contrato. En este orden de cosas, se hace constar que la Diputación Foral de Bizkaia queda desvinculada a todos los efectos de cualquier relación laboral con el equipo profesional de la entidad adjudicataria.

Lizitatzaileek hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin behar dute euren proposamenak egin eta aurkeztean. Halaber, kontratua indarrean den artean adjudikaziodunak ezin du hizkera sexistarik erabili sortzen dituen behin betiko agirietan (idatziak zein digitalak), eta, era berean, sexuaren arabera xehekatu beharko ditu datuak pertsonei buruz sortzen dituen estatistika guztietan, hala behar duela ezartzen baitute Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikuluak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak, bietan ezartzen baitira arlo horretan errespetatu beharreko printzipioak.

Las licitadoras en la elaboración y presentación de sus respectivas propuestas deberán hacer un uso no sexista del lenguaje. Asimismo, la adjudicataria a lo largo de la vigencia del contrato deberá hacer uso no sexista del lenguaje en cualquier documento definitivo escrito o digital, así como, deberá desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que se genere, todo ello al amparo del artículo 2.3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. en las que se señalan los principios generales que deberán respetarse.

Horrez gainera, lan guztiak konfidentzialak izango dira, eta adjudikaziodunak ezingo ditu beretzat erabili kontrataturiko lanetako datuak zein informazioa, ez hirugarren pertsona batzuei nahiz entitateei eman; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena beharko du, eta, beraz, adjudikazioduna behartuta dago bere esku dauden baliabide guztiak jartzera isilpean eta sekretupean gordetzeko hala informazioa eta dokumentazioa nola eginiko lanen emaitza.

Asimismo, todos los trabajos realizados tendrán carácter confidencial, no pudiendo la adjudicataria utilizar para sí, ni proporcionar a terceras personas o entidades, datos o información alguna de los trabajos contratados sin autorización escrita de la Diputación Foral de Bizkaia, estando, por tanto, la adjudicataria obligada a poner todos los medios a su alcance para conservar el carácter confidencial y reservado, tanto de la información y documentación como de los resultados obtenidos del trabajo realizado.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. VV07-58A9-MICN-KSKX Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) VV07-58A9-MICN-KSKX en www.ebizkaia.eus.

b) Zaharberritze-eragiketak

Garbiketa-lanak beti egingo dira produktu egoki eta ez-inbaditzaileekin, betiere zaharberritu beharreko dokumentuaren osotasun fisikoa bermatuta. Hala ere, ez da inoiz agente zuritzailerik erabili behar (*oxidatzaileak* nahiz *erreduktoreak*).

Era berean, desazidotze-eragiketak metodo egokiekin eta ez-inbaditzaileekin egingo dira beti, bermatzeko ez dagoela inola ere bigarren mailako ondoriorik, eta zaharberritu beharreko dokumentazioak eraginkortasun, iraupen eta iraunkortasunik handiena duela. 8-8,5eko pH-a lortu beharko da.

Dokumentuaren osotasuna gordetzen duen metodologia bat erabiliz egin behar dira txertatze zelulosikoko eragiketak beti, dokumentuaren hauskortasun-egoera kontuan hartuta eta paperaren ezaugarrien arabera. Erabiltzen den pulpa zelulosikoa txertaketaren iraupen eta iraunkortasunerako egokiena dela bermatuz egin behar dira beti txertatze zelulosikoko eragiketak. Euskarria galduta dagoela-eta leheneratze zelulosikoa beharrezkoa den zatietan, kontuan hartuko da pulparen eta jatorrizkoaren arteko doikuntza kromatikoa.

Zaharberritu beharreko dokumentazioaren ezaugarrien arabera berariazko diren produktu eta metodoekin egin behar dira sendotze- edo ijezte-eragiketak, betiere dokumentuaren osotasuna bermatuz. Kultura Ondarearen Zerbitzuko teknikariek erabakiko dute, kasu bakoitzean, zer dagokion: sendotzea ala ijeztea.

Tinta metaloazidoak egonkortzea.

b) Respecto a las operaciones de restauración

Las operaciones de limpieza se realizarán siempre con productos apropiados y no invasivos que, en todo caso, garanticen la integridad física del documento a restaurar. No obstante, nunca se deberán utilizar agentes blanqueantes *(oxidantes o reductores)*.

Asimismo, las operaciones de desacidificación se realizarán siempre con métodos adecuados y no invasivos para garantizar en todo caso, la ausencia de efectos secundarios, así como la máxima eficacia, permanencia y durabilidad de la documentación a restaurar. Se deberá conseguir un pH 8-8,5.

Las operaciones de injertación celulósica se realizarán con metodología que, en todo caso, respete la integridad del documento teniendo en cuenta el estado de fragilidad del mismo y de acuerdo con las características del papel. Las operaciones de injertación celulósica se realizarán siempre garantizando que la pulpa celulósica utilizada es la más idónea para la permanencia y durabilidad del injerto. En las zonas en las que la reintegración celulósica del soporte sea necesaria por estar perdida, se tendrá en cuenta el ajuste cromático de la pulpa con el original.

Las operaciones de consolidación o laminación se realizarán con productos y métodos *ad hoc* con las características de la documentación a restaurar y que siempre y en todo caso, garanticen la integridad del documento. La elección, en cada supuesto, entre consolidación o laminación será determinada por los/as Técnicos/as del Servicio de Patrimonio Cultural.

Estabilización de tintas metaloácidas.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. VV07-58A9-MICN-KSKX Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) VV07-58A9-MICN-KSKX en www.ebizkaia.eus.

c) Kontratua gauzatzeko lekuaren baldintzak:

Adjudikaziodunak lokal edo establezimendu bat eduki eta identifikatu beharko du, eta hantxe egin zerbitzua emateko behar diren lanak.

Honetara konprometitzen da adjudikazioduna:

- Egonkor mantentzea tenperatura eta hezetasun erlatiboa.

- Giroa kontrolatzeko neurgailuak izango ditu lokalak. Gomendatzen da tenperatura 18 °C eta 20 °C artekoa izatea, eta hezetasun erlatiboa, berriz, % 45 eta 50 artekoa, gorabehera txikiekin.

- Gordailuaren hormetatik ezingo da igaro gas- edo ur-hodirik.

- Instalazio elektrikoek seguruak izan behar dute eta aldizkako kontrolak egin behar zaizkie.

- Ahalik eta erradiaziorik txikieneko luminaria-sistema jarri beharko da (erradiazio-maila gutxitzeko iragazkiz hornitua).

- Argi naturalari dagokionez, *black out* erako edo oihal bikoitzeko iragazkiak nahiz gortinak erabiliko dira, eguzki-izpien eragin kaltegarria murrizteko.

- Aire-sarreretan, iragazkiak jarriko dira, ingurumen-kutsadura eta kutsadura biologikoa saihesteko (intsektuak, onddoak eta bakterioak).

Kontratua gauzatzen hasten deneko lehenengo hamabost egunetan, Kultura Ondarearen Zerbitzuko teknikariek egiaztatuko dute adjudikaziodunak

c) Respecto a las condiciones del lugar de ejecución del contrato:

La adjudicataria deberá disponer e identificar un local o establecimiento desde el cual realice las tareas necesarias para la prestación del servicio.

La adjudicataria se compromete a:

-Mantener estable tanto la temperatura como la humedad relativa.

-El local contará con aparatos de medición para control ambiental. Se recomienda una temperatura entre los 18 ° y 20° C y una humedad relativa de 45 a 50 %, con variaciones pequeñas.

-Por las paredes del depósito no deberán pasar cañerías de gas ni de agua.

-Las instalaciones eléctricas deberán ser seguras y sometidas a controles periódicos.

-El sistema de luminarias deberá ser aquél cuya radiación sea lo menos significativa posible (filtros incorporados para disminuir el grado de radiación).

-En cuanto a luz natural, se utilizarán filtros o cortinas del tipo black out o de doble tela que disminuyan el efecto nocivo de los rayos solares.

-Se colocarán filtros en las entradas de aire, para evitar la contaminación ambiental y biológica (insectos, los hongos y las bacterias).

Durante los primeros quince días de ejecución del contrato el personal técnico del Servicio de Patrimonio Cultural comprobará que el lugar de trabajo

Elektronikoki sinatutako dokumentua. VV07-58A9-MICN-KSKX Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) VV07-58A9-MICN-KSKX en www.ebizkaia.eus.

izendaturiko lantokia bat datorrela goraxeago azalduriko baldintzekin, eta hala dela jasoko dute hartarako eginiko txosten batean.

designado por la adjudicataria se adecúa a las condiciones expuestas, dejándose constancia de ello en el oportuno informe que se emitirá a tal efecto.

d) Segurtasun-neurriak

d) Medidas de seguridad

Eman beharreko zerbitzuaren izaera kontuan hartuta, zaharberritu beharreko dokumentazioa Kultura Ondarearen Zerbitzuko gordailuetatik atera beharko da, eta adjudikaziodunaren tailerrera eraman, zaharberritzeari ekiteko. Horrenbestez, segurtasun-neurri hauek bete beharko dira:

Teniendo en cuenta la naturaleza del servicio a prestar, la documentación a restaurar deberá salir de los depósitos del Servicio de Patrimonio Cultural con destino al taller de la adjudicataria para proceder a su restauración. Por consiguiente, deberán cumplirse las siguientes medidas de seguridad:

- Dokumentazioa zaharberritu ahal izateko, lokalek nahitaez izan beharko dituzte suteen aurkako segurtasun-neurriak, intrusio-alarma bat eta lapurreten aurkako alarma-motaren bat telefono-transmisore bidez konektatua 24 orduko zaintza-sisteman duen alarma-zentral batera, bai eta kea edo beroa detektatzeko gailuak ere.

-La restauración de la documentación sólo podrá realizarse en locales que cuenten con las debidas medidas de seguridad contraincendios, alarma de intrusión y algún tipo de alarma antirrobo conectada mediante un transmisor telefónico a una central receptora de alarmas con vigilancia las 24 horas, como así también de detectores de humo o de calor.

Gogoan izan behar da DEBEKATURIK dagoela erretzea dokumentuak zaharberritzeko lokal guztian.

Se recuerda la prohibición de NO fumar en todo el local destinado a la restauración de los documentos.

- Adjudikaziodunak nahitaez aurkeztu beharko ditu aurreko paragrafoan azaldutako zerbitzuen kontratazioa eta mantentze-lanak egiaztatzen dituzten agiriak.

-La adjudicataria deberá presentar la documentación que acredite la contratación y mantenimiento de los servicios expuestos en el párrafo inmediatamente anterior.

- Era berean, adjudikaziodunak garraio-zerbitzu itxi bat izan beharko du, objektuaren ezaugarrietara egokituko dena eta, nolanahi ere, dokumentu-ondarea behar bezala lekualdatu eta manipulatuko dela bermatuko duena. Alde horretatik, Kultura Ondarearen Zerbitzuko teknikariek ikuskatuko dute garraiobidea, eta ez da baliozkotuko harik eta Ondare Zerbitzuko teknikariek ontzat eman arte.

-Asimismo, la adjudicataria deberá contar con un servicio de transporte cerrado que se adapte a las características del objeto y garantice en todo caso el correcto traslado y manipulación del Patrimonio documental. En este sentido, los/as Técnicos/as del Servicio de Patrimonio Cultural supervisarán el medio de transporte, que no será validado en tanto en cuanto los/as Técnicos/as del Servicio de Patrimonio den su visto bueno.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. VV07-58A9-MICN-KSKX Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) VV07-58A9-MICN-KSKX en www.ebizkaia.eus.

- Dokumentu-funtsak lekualdatzeko, dokumentuen kontserbazioan espezializatutako ezagutza duen pertsona bat izendatu beharko da gutxienez, une oro gainbegira dezan lekualdaketa.

-Para el desplazamiento de los fondos documentales, se deberá designar mínimamente a una persona con conocimiento especializado en conservación documental, para que supervise en todo momento la operación de traslado.

- Kartoizko kutxak erabiliko dira dokumentazioa enbalatzeko eta garraiatzeko.

-Se utilizarán cajas de cartón para el embalaje y transporte de la documentación.

- Manipulazioa: obra zuzenean ukitzea dakarten eragiketa guztiak kotoizko eskularruak jantzita egingo dira, eta arreta nahiz kontu handiz.

-Manipulación: Todas las operaciones que impliquen el contacto directo con la obra se realizarán con guantes de algodón y con extremo mimo y cuidado.

e) Lanaren kontrola

e) Respecto al control del trabajo

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko teknikariek kontratua nola gauzatzen den gainbegiratuko dute, eta esku izango dute kontratua eteteko, baldin eta hura gauzatzen ari den modua ez badator bat proiektuarekin edo kontserbatu beharreko ondasunari kalte egiten dioten aldaketarik gertatzen bada.

La ejecución del contrato se realizará bajo la supervisión de los/as Técnicos/as del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia, quien podrá suspender la realización del mismo cuando no se ajuste la intervención en curso al proyecto a ejecutar o en el caso de que se produzcan alteraciones que perjudiquen el bien a conservar.

Kontratua gauzatzen hasten deneko lehenengo hamabost egunetan, Kultura Ondarearen Zerbitzuko teknikariek zaharberritze-prozesuaren lehen ebaluazio bat egingo dute, adjudikaziodunaren lokaletan, zehazteko jarduera-parametroak bat datozela adjudikaziodunak proposatutako memoria teknikoaren zehaztapenekin. Hala ere, Kultura Ondarearen Zerbitzuko teknikariek egoki iruditzen zaizkien ikuskapen- eta kontrol-bisitak egingo dituzte.

En los primeros quince días de la ejecución del contrato, los/as Técnicos/as del Servicio de Patrimonio Cultural realizarán una primera evaluación del proceso de restauración en los locales de la adjudicataria a fin de determinar que los parámetros de actuación se ajustan a las especificaciones de la memoria técnica propuesta por la adjudicataria. No obstante, los/as Técnicos/as del Servicio de Patrimonio Cultural girarán las visitas de inspección y control que estimen oportunas.

Adjudikaziodunak hilero aurkeztu behar ditu bere lanari buruzko txostenak, fakturazioarekin batera, egindako lana justifikatzeko, eta, esleitu zaion lana

La adjudicataria deberá presentar informes mensuales de su trabajo, que acompañarán a la facturación, justificativas del trabajo realizado, así como un informe detallado al

Elektronikoki sinatutako dokumentua. VV07-58A9-MICN-KSKX Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) VV07-58A9-MICN-KSKX en www.ebizkaia.eus.

amaitzean, txosten zehatz bat. Ezinbestekoa da txosten hori aurkeztea aurrekontua likidatzeko, eta zerbitzuaren gauzatzearen arduradunak sinatu beharko du txostena.

finalizar la ejecución del trabajo adjudicado. La presentación de dicho informe es requisito ineludible para la liquidación del presupuesto, que vendrá firmado por la persona responsable de la ejecución del servicio.

Une oro izango da aukera zaharberritu beharreko dokumentuen zerrenda aldatzeko, baldin eta proposaturikoen ezaugarri berekoak edo antzekoak badira, Kultura Ondarearen Zerbitzuak ezarritako irizpideen arabera.

En todo momento existirá la posibilidad de modificar la relación de los documentos a restaurar, de igual o similar característica a los propuestos, en función de los criterios determinados por el Servicio de Patrimonio Cultural.

f) Genero-berdintasunaren ikuspegitik hartu beharreko neurriak.

Genero-berdintasunaren ikuspegitik hartu beharreko neurriak –dokumentu honen a) letran adieraziak– betetzen direla justifikatzeko, kontratazioaren genero-eraginari buruzko memoria bat sartuko da kontratuaren xede den prestazioa egin izanaren azken justifikazioan, eta bertan jasoko dira, sexuaren arabera banakaturik, zerbitzua ematen duten langileei buruzko adierazle eta datuak, aplikatutako berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko.

f) Medidas a adoptar desde la perspectiva de igualdad de género.

Para justificar el cumplimiento de las medidas a adoptar desde la perspectiva de igualdad de género –ya indicadas en el apartado a) del presente documento- en la justificación final de la realización de la prestación objeto del contrato se incluirá una memoria sobre el impacto de género de la contratación, con los indicadores y datos desagregados por sexo del personal prestador del servicio que posibiliten evaluar la eficacia de las medidas de igualdad aplicadas.

g) Datu pertsonalen babesa

Gai honi dagokionez baldintza teknikoen agiri honen eranskina bete beharko da

g) Protección de datos personales

Se estará a lo establecido en este asunto en el anexo de este pliego de prescripciones técnicas.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. VV07-58A9-MICN-KSKX Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) VV07-58A9-MICN-KSKX en www.ebizkaia.eus.

Sin./Fdo.: ZURIÑE MIREN ANTOÑANA OZAETA - 2021-04-16
KULTURA ONDAREAREN ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE PATRIMONIO CULTURAL

ERANSKINA -ANEXO

KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ZEINAREN BIDEZ, DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN ARDURADUNA DEN ALDETIK, ADIERAZTEN BAITU KONTRATU HAU BURUTU ONDOREN EZ DAGOELA ENKARGURIK DATU PERTSONALAK TRATATZEKO: BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO KULTURA ONDAREAREN ZERBITZUKO DOKUMENTU-ONDAREA ZAHARBERRITZEA: KORREJIMENDUAREN FUNTSA (1631-1640 ETA 1641-1650 URTEAK)

Kultura Zuzendaritza Nagusia datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna den aldetik, hau adierazten du: «Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko dokumentu-ondarea zaharberritzea: Korrejimenduaren Funtsa (1631-1640 eta 1641-1650 urteak)» izeneko kontratua burutu ondoren, kontratista ez dela datu pertsonaletara sartuko eta ez duela datu pertsonalak tratatzeko jarduerarik egingo arduradunaren kontura. Ondorioz, formalizatu behar den kontratuak ez dakar datu pertsonalak tratatzeko enkargu-kontraturik, eta hori adieraztea da adierazpen honen helburua.

Datu pertsonalen tratamendua egin behar izanez gero, aurretik adierazi behar dira, idatziz, zer instrukziok arautzen duten datu pertsonalen tratamenduaren egintza juridikoa edo enkargu-kontratua, hain zuzen, zuzendaritza (tratamenduaren arduraduna) eta kontratista (tratamenduaren eragilea) lortzen dituena.

DECLARACIÓN RESPONSABLE DE LA DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA, RESPONSABLE DE TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES DE INEXISTENCIA DE ENCARGO DE TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES A LA PERFECCIÓN DEL CONTRATO DE RESTAURACIÓN DE PATRIMONIO DOCUMENTAL PERTENECIENTE AL SERVICIO DE PATRIMONIO CULTURAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA: FONDO DEL CORREGIMIENTO (AÑOS 1631-1640 Y 1641-1650).

La Dirección General de Cultura en calidad de Responsable de tratamiento de datos personales, manifiesta que tras la perfección del contrato de Restauración de Patrimonio documental perteneciente al Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia: Fondo del Corregimiento (años 1631-1640 y 1641-1650); la persona contratista no accede a datos personales y no realiza actividades de tratamiento de datos personales por cuenta de la persona Responsable. En consiguiente, el contrato a formalizar no implica contrato de encargo de tratamiento de datos personales, y es objeto de esta declaración así manifestarlo.

En el supuesto de tener lugar tratamiento de datos personales se debe de manera previa expresa y por escrito establecer las correspondientes instrucciones que regulen el acto jurídico o contrato de encargo de tratamiento de datos personales que vincule a la Dirección, Responsable de tratamiento, y la persona contratista, Encargada de tratamiento.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. ISVM-XX71-R917-OOY1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) ISVM-XX71-R917-OOY1 en www.ebizkaia.eus.

Sin./Fdo.: BEGOÑA DE IBARRA ZUAZO - 2021-04-19
KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA

Sin./Fdo.: LOREA BILBAO IBARRA - 2021-04-19
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE